


## IZEN-DEITUREN AUZIA

Euskal literaturan komunizki Agustín P. Iturriaga izenarekin ezagutzen dugun euskal idazle kezkatuaren izen deiturek makina bat buruhauste eman izan diote zenbait biografori, gezurra badirudi ere.

«Agustín Ignacio María Pascual Ugalde Iturriaga» dio bataio-agiriak. Ohar gaitezen, beraz, alde batetik, Pascual ez dela izena, deitura baizik; eta, bestetik, Iturriaga ez dela haren lehen deitura, hirugarrena baino. Agustín Pascual de Ugalde behar omen zukeen.

Dena dela, «Agustín Pascual Iturriaga» sinatzen du (aitaren bi deiturekin alegia: D.A.P.I.P. (=Don Agustín Pascual Iturriaga, Presbítero) bere idazki guztietan. Halaxe egiten du haren anaiak ere, bere burua «Cayetano Pascual de Iturriaga» modura aurkeztuz.

Pascual deitura hori Errioxatik datorkio, Autol-dik hain zuzen ere, bertakoa bait zen Errenteriara bizitzera etorritako haren aitona Andres eskribaua. Aita ere eskribau-lanetan arituko da Hernanin.



## LEHEN URTE ETA IKASKETAK

Hernanin jaio zen 1778ko urtarrilaren 31n. Aita, Joan Jose Pascual Iturriaga zuen eta ama, M<sup>a</sup> Antonia Ugalde Amitesarobe.

Lehen heziketa Hernanin bertan hartu ondoren, badirudi Andoaingo seminarioan hasi zituela bere ikasketak, eta, ondoren, Oñatiko Unibersitatean Filosofia eta Teologiako Ikaskuntzak egin.

Hogeitasei urte dituelarik apaiztuko da eta, Gotzainaren aginduei men eginez, bere jaioterrian, Hernanin, ihardungo apaiz-eta irakas-lanetan.


### HERNANI

Hernaniko semea zen Agustin P. Iturriaga (1778-1851). Garai haietatik hona, aldakuntza handiak ezagutu ditu idazlearen jaioterriak. Herriaren bihotzean ageri den eliza horretan bete zituen Iturriagak bere apaiz-eginkizunak.




### OÑATIKO UNIBERTSITATEA

J.I. Lasak ez du Iturriagaren aztarnarik aurkitu Unibertsitate honetako paperetan; baina, G. Mujicari jarraiki, bere ikasketak Oñatiko goi-ikastetxean egin zituela esan ohi da, eskierki.



### ANDOAINGO SEMINARIOA

Etxe berri haxe da Andoianen Iturriagak ezagutu zuen seminario-ikastetxearen ondokoa. Handik hona betekizun ezberdinak izan ditu: Seminario, eskola eta orain bertan euskaltegi. Iturriaga baten haurtzaroko ikastegiarentzat azken eginkizun ederra zinez!



## IRAKASTURTEAK

Apaiztu baino lehenagotik ere irakaskuntzari emana ageri zaigu. Honela diosku berak: «desde mucho antes que fuese presbítero, imitando el exemplo de varios sacerdotes zelosos y benéficos de su Pueblo, se había dedicado á enseñar la gramática latina á algunos jóvenes».

1817tik 1823ra bitarteko epealdian arituko da bereziki irakaskuntzan, eta erabat emanik arituko ere, bere anaia Cayetano eta Manuel Larrarterekin batera. Hernanitik kanpora atera beharrik gabe, herrian bertan gaztetxoak hezi nahirik, Gipuzkoako Aldundiari eskola bat irekitzeko baimena eskatu zion. Eskabide

### «ITURRIAGA» INSTITUTUA

Iturriagaren oroimena bizirik dago hernaniarren artean, eta irakaskuntzarako eraikuntza berriak etorri direnean, herriko pedagogo eta euskaltzale haren izena eman zaio Hernaniko Institutuari, idazleak eskolagintzan emandako ahaleginak aitortuz noski.



horretan eskolaren funtzionamenduaz, irakatsiko diren gaiez, etab. badator nahikoa datu. Aldundiaren baimenarekin sortu eta sei urtez iraun zuen berak zuzentzen zuen eskola horrek.

Espanian «Tienio Constitucional» (1820-1823) delakoa bukatu zenean, ez ausaz noski, iraungi zen eskolaren ibilbidea. Konstituzio erregimenaren aldeko azaltzen omen zelako edo, eskolak ez zuen irakaskuntzan jarraitzeko baimenik gehiago lortu.

### ITURRIAGA KALEA

Herriko seme hau ohoratzeko Hernaniko kale bati ere eman zaio Iturriagaren izena.



## ERBESTALDIA

Hori gutxi balitz, inguruko jende ikasiekin harreman eta elkarrizketak izaten zituela eta, entziklopedistatzat salatu zuten Iturriaga Iruñeko Gotzainaren aurrean. Entziklopedista eta Hernaniko gazteria hondatzen, gaiztotzen eta galbideratzen zuen Voltaire-ren jarraitzaile sutsua omen, alajainkoa!.

Gazteak filosofia okerrean hezi eta galtzen ei zitueneko salaketa ustela aski izan zen, dirudienez, irakaskuntzarako baimena kentzeko ezezik erbesteratzeko ere.

Garai hartan Euskal Herria zatikaturik zegoen. Aldi hura ere ez zen txantxetakoa izango, garaiko bi partidu

politiko nagusiak —liberalak eta karlistak— borrokan bait zebiltzan. Eta bere Hernanitik erbesteratu beharra izan zen, nonbait, zegokion ordain garratza.

Lehen gerrate karlistak (1833-1839) iraun zuen denbora eta gehiagoz, zazpi urtez zehazki, Hegoaldeko bi herritan ezkutaturik ikusiko dugu lehendabizikoz eta Iparraldera erbesteratuta gero, harik eta 1841ean atzera Hernanira itzuli zen arte.

Lapurdiko Miiufrangan, Arkangoitzeko markes jaunak zuen Larralde-gazteluan, bizi izan zen. Eta, uste denez, hementxe mamitu eta ondu zituen hernaniar maisu argi honek bere *Jolasak eta Ipuiak*.

### KARDABERAZ (1703-1770)

Aita Agustin Kardaberaz ere hernaniarra zen, eta Iturriagaren garaian oso bizirik zeuden, artean, predikari eta idazle sonatuarekin lan eta hitzen oihartzunak. Kardaberazek euskara ere eskolaratzea eskatu zuenean, gerora Iturriagak zabaldu eta luzatuko zuen bide bera urratzen hasi zen. Zaletasun eta grina berekoak ageri zaizkigu bi elizgizonak.



ATZERA

### ESAERA ZAHARRAK

Hernaniko Kanposantuko sarreran dago esaldi hau: Iturriagak jarria da. Dakigunez, beste herriren bateko hilerria ere iritsi zen esankizun hori. Esaera zaharrak herritik bildu, edo berak bere gisara sortu, bazekien maisu eta apaiz herritar honek esakun laburak zintzelatu eta ontzen.



AURRERA



## GERRAONDOKO URTEAK

Oraindik ere, itzuleran, zenbaitek abegitasun handirik gabeko ongietorria egin ziola dirudi. «Heretikoek ohi duten lotsagabekeriaz aurkeztu da, gazteak filosofia okerrean hezten dituen hori», diote setatsu haren arerio nekagaitzek.

1841etik 1851ra bitarteko azken hamar urteetan bere herrian ikusten dugu berriro, beraz. Apaiz-zereginetan, dudarik gabe, baina baita bere hiru liburuak argitaratu eta euskaldunen batasun-beharra aldarrikatzen ere.

Iturriagaren bizitze-moldea eta aierua definitzen lagun liezagukeen beste daturik ere ezagutzen da, gehiegirik ez bada ere. Horietarik nabarmenena, agian, kaperau lanengatik zegozkion diru-eskubide guztiei uko egin ziela herriko gaixoen faboretan.

### GIPUZKOAKO ALDUNDIA

Bere kabuz egindako ahaleginen ondoan, saiatu zen Iturriaga herri-irakaskuntza publikoaz ere bere kezka ereiten, Aldundiari zuzendutako txostenean ikus daitekeenez (1817). Herri-irakaskuntzaren arduradunek ere bazuten konfidantzarik Iturriagarengan: 1821ean, adibidez, Aldundi Konstituzionalak eskola-iiburuen hautapen bat egiteko eskatu zion apaiz maisuari.

Hernanin bertan hil zen 1851n, 73 urte zituela, Eliza Ama Santu, Katoliko, Apostoliko eta Erromakoan sinesten duelarik, berak bere testamentuan berariaz eta propioki aitortu bezala. Zail egiten da ulertzen, ondorioz, nolatan izan zitekeen Voltaire-ren jarraitzaile sutsua eta guztizko liberala modu honetako testamento «formara» egiten duen bat.

Ehortzi, ziur aski, Hernaniko hilerrian egingo zuten, non sarreran Iturriagak berak euskaratutako esakuntza ezagun hau irakurtzen den:

«Laister esango da zuekgatik,  
Esaten oi dana gugatik:  
Il ziran!»



## LAGUNARTEA

Aipatua dugu inguruko jende ikasiekin harreman eta tertuliak izaten zituela. Tertulia hauetara, Iturriagaz gain, garaiko Luis Arozena, Klaudio Luzuriaga, Mateo Azcarate, J.A. Zuaznabar, etab. biltzen zirela dirudi, Fermin Lasalaren inguruan. Tertulia horiek zirela medio sortuko zen, ez dago dudarik, leporatu zitzaion entziklopedista fama.

Badira, haatik, ukan duten sona bitarteko, besteen gaintik aipatu beharreko bi gizon, bi gogaide, bi lagun.

Bata, *J.I. Iztueta* (1767-1845) zaldibiarra dugu. Eta haien ideia politikoez bestelakorik pentsaraz badiezagukete ere, lagun mina zuen, bien arteko eskutitzek erakusten digutenez. Gutun horiexetatik dakigu prezeski Iturriagaren zenbait ipuin Iztuetak euskaraz jarriak zirela. Ez hori bakarrik, baita Iturriaga berandu arduratu zela euskararekin ere, Iztuetaren itzalean nonbait, eta irakaskuntzako eskarmentuak beharturik, agi denez.


Bestea, *Muñagorri* eskribau, bakegile eta foruzalea dugu. Hau ere adiskidea du. Eta honen inguruan «Bakea eta Foruak» ikurpean sortu zen mugimenduarekin bat dator, «Gipuzkoarrak», poeman erakusten digunez: *Lehena eta funtsezkoena euskaldunen arteko haserreak uxatzea da*. Hala, bada, nekeza gertatuko da Iturriaga liberalen zein karlisten taldean ikustea. Ezer baino lehen euskalduna da.

### ALDUNDIARI BAIMEN-ESKE

Formaltasun osoarekin eraiki nahi izan zuen Iturriagak Hernaniko bere Eskola. Horretara 1817ko urriaren 17an eskaera ofizial hau egin zion Gipuzkoako Diputazioari: ordutegiaz, eskola-liburuez, jatorduez, jantzi eta pentsioaz mintzatzen zen. Proposatutako pedagogiak ez zuen ametziten ikaslea jipoitu edo jotzea.

### JUNTENTZAKO LANEAN (1830)


Iturriagak itzal handia irabazi zuen bere garaikideen artean. Ikusi besterik ez dago, Gipuzkoako Juntetako Batzorde berezi batek nola eskatu zion bere aholkua euskara Eskolaren bidez nola zain zitekeen galdetuz. Iturriagak txosten arrazoitu batekin erantzun zuen: «Memoria sobre el decreto de las últimas Juntas Generales de Mondragón relativo a la conservación de la lengua bascongada». Gipuzkoako Artxibo Nagusian gordeta dago idazlan hau, ata J.I. Lasak aman zuen argitara (BRSBAP 1965, 185-196).



## PEDAGOGO AURRERATUA

Herriko lagun eta adiskide batzuen eskeari jarraituz sortuko du Hernaniko eskola. Aspaldiko urteetan beste apaizek eta berak herriko haur eta gaztetxoei ematen zizkieten latineko eta gramatikako eskola solteen orde egun osoko lanbidea eskatu zioten nonbait. Hortik sortu zen, eskola eraiki asmoz, Gipuzkoako Aldundiari egindako eskaria.

Ezer bazen, irakasle genuen Agustin Iturriaga. Euskal idazleetan



ezagun eta klasiko dugu hernaniar ospetsu hau, ordea, *euskal pedagogian aitzindari eta gidari* modura agertzen bada, ez da soilik euskararentzat eskatzen zuen protagonismoagatik, bere garaian berrikuntza suertatzen zen beste gorabehera bategatik baizik.

Aldundiari Hernanin ikastetxea eraikitzeko baimen-eskea egiten zion eskutitzean, eta zigorrei buruz ari dela, *todo castigo corporal queda proscrito* dio, garaiari urteak harrapatuz.

Ezin esan garai hartan horrelakorik esatea berritasuna izango ez zenik. Aparteko merezimendua zor zaio horregatik. Gaur egun, Hernaniko Batxilergo Institutuak haren izena darama.

### IDEIEN BORROKA (1820-1823)

Penintsulan eta euskal Hegoaldean, ideien aldeko eta kontrako borroka behin baino gehiagotan odoltsua izan zen. Liberalen eta tradiziozaleen arteko gatazka, honela marraztu zuen urte haietako karikatura honek. Honelatsuko giroan bizitzea suertatu zitzaion Iturriagari.



## IRAKASLE ON ETA PRESTUA

Ikastetxe horretan Iturriagak latineko, frantseseko eta gaztelaniako gramatika, eta, apaiz zen aldetik, kristau-dotrina irakasten zituen. Haren anaia Cayetanok, matematikak eta geografia. Manuel Larrartek, lehen letretako maisu eta organujole bati zegokionez, idazten irakasten zuen, eta musika.

Aritzetik aritzera aldea dago nonbait eta, garai hartan ohizkoa zen *leatzen, eskribitzen eta kontatzen* soilik ikasten ez zelako akaso, halako ospe handia hartu zuen Iturriagak gobernatutako ikastetxe gazte honek ezen Gipuzkoatik ezezik auzoko Nafarroatik ere ikasle franko biltzen zen bertara.

### GERRAREN TRISKANTZAK (1833-1839)

Karlistadako ankerkeriak izugarriak izan ziren, bi aldeetan. Gudu zuzen-garbiaren ondoan, baita itxuragabeko gorrotozko hilketak ere: garaituak eta preso-hartuak garbitu egin ziren inoiz. Izugarrikeria haietatik ihesi joan zen Iturriaga. Marrazkian, hilketa hauetako bat (kristindarren marrazkia, 1835-1841).



Jose Manterola euskal zuzpertzaille ezagunaren esanetan, Iturriagaren irakasle-gaitasunak goraipatu-asmoz nolana ere, «dakien baino gehiago ere irakasten omen du». Eta hori gutxi bailitzan, «besteek hiru urtetan irakasten duten latina, honek bi urtetan» irakatsi ahal omen zuen, zehazten du mirespenez.

Irakasle eta pedagogo onaren entzute hau guzti bermatzen dute, eraberean, Gipuzkoako Aldundiak irakaskuntza gaietan eskatu zizkion lan eta aholkuek.



### EUSKAL HERRITIK EUSKAL HERRIRA

Hegoaldetik Iparraldera ihes egin behar izan zuen Iturriagak. Vivien-en koadro honek, Donibane-Lohizunetik XIX. mendean ageri zen Hegoaldea erakusten digu, Iturriagak ere halaberrez urrundik begiratu behar izan zuen hegoalde hori.



## EUSKARA, ESKOLARA

Sarako Joannes Etxeberri izan zen XVIII. mendean latina -garai hartan goi-jakiteetarako nahitaezkoa zena- euskararen bidez ere ikas zitekeela aurrikusi eta aldarrikatu zuen idazlea.

Bide beretsutik abiatu zen Iturriaga ere. Argi eta garbi ikusi zen edozein hizkuntzaren etorkizuna idatzizko bideetan zetzala. Eskola-hizkuntza ez izatetik zetorkion, besteak beste, ajea euskarari. Eta eskolarik gabeko euskaldun gisa zekusan bere burua; eta herri osoa zen euskaraz ikasi gabea, akaburako.

1830ean, Gipuzkoako Batzar Nagusiek Arrasaten egindako bileran, *Euskararen iraupen eta Ilustraziorako*

batzorde bat sortzen delarik, gai horretaz «memoria» bat prestatzeko eskatzen diote Iturriagari. Bai egin ere honek.

Geuk, euskaldunok, euskararekiko dugun jokabide makurra eta zabarra salatzen du Iturriagak inolako lotsarik gabe:

—Alde batetik, apologistak—  
Garibai, Etxabe, Poza, Larramendi...—  
euskararen antzinatasuna eta edertasuna gorai patzen ari dira etengabe. Erdaraz, noski.

—Bestetik, berriz, eskoletan ez dugu batere lantzen. Galtzen ari da, geure erruz.

9

### BERGARAKO MINTEGIA

Iturriagaren eta beronen inguruko lagun kezkatuen artean (Berroeta, Lasala, Iztueta, etab.), aurreko belaunaldietako, «Zalduntxo» nahiak sumatzen dira. Junten dekretuaurreko elkarrizketa haietan (1830), adibidez, ohartuki gogoratzen da Euskal Herriaren Lagunartea indarberritu-premia, herriaren beraren berrikuntzarako ere. Iturriagaren «Memoria» ere arrasto beretik zihoan, beraz, garai bateko Bergarako Mintegiko irakas-grinari segida emanez.

### J.I. IZTUETA (1767-1845)

Hamarkada baten aldea izanik ere, Iztueta eta Iturriaga aro bereko gizonak ditugu. Eta elkarren lagun minak izan ziren, gainera. Eta datu jakingarri bat: Iztueta izan zen, nonbait (eskolako eskarmentuaz gain), Iturriaga euskaraz idaztera buitzatu zuena. Argazkian, Iztuetari Donostian eskainitako oroigarria.




# 10

Nabaria da kontraesana. Horrela, alegia ezagun hartan belea gelditu zen bezala aurki gintezke laster batetan: harro-harro baina gaztarik gabe. Zer axola zaigu, baina, gure hizkuntza laudorioz eta lausenguz betetzea, handitasunean puztu-puztutzea, euskaraz ez irakurtzen eta ez idazten eta are gutxiago esaldiak elkarri lotzen ez badakigu? Konponbiderik gabeko heriotz bidean doa horrela.

Lehen mailako eskoletatik jasaten du euskarak erasorik bortitzena. Hurrekin erabiltzen diren sistema antipedagogikoak salatzen ditu Iturriagak. Erdara ikas dezaten

ETXEBERRI SAKAKO (1668-1749)

Eskokoletako irakaskizunak euskaraz eman litezkeela, eta behar direla, Iturriagaren aurretik defendatu zuenetako izenik sonatuena Etxeberri Sarakoa du. Areago oraindik: Irakaslanetarako (kasu honetan, latina irakasteko) idatzi ere egin zuen. Hona, latina ikasteko euskarazko gramatika hau.



euskara galerazi eta gorrotaraztea da sistema horren adierazpenik larriena. Alderantzizko bidea da, juxtuan, erabili beharrekoa: *euskaraz irakurtzen eta idazten irakatsi lehenik*. Gero errazago ikasiko du erdaraz ere gauza bera egiten.

«Orain dala saspri urte humechoaquin dempora iragotcen nubenean esagutu nuben cer eraquería andia eguiten zan emengo escoletan erderas gaiztiai iracurtcen eracustearquin, izanic milla bider errasago eusqueraz icastea eta eracustea» dio Iztuetari egindako eskutitz batean.

«LANGILE» IKASTOLA (Hernani)

Iturriagak urte gutxi batzutan mantendu ahal izan zuen, zutik eta irekita, bere eskola. Mende terdi geroago haren herritarrek bizirik eta indartsu zaintzen dute «Langile» Ikastola hau.



## GARAIKO SEME

Bere garaiko seme izaki, ez du uste erdara euskararen etsai denik edo izan daitekeenik. Bata besterako zubi izan dadin pedagogia egokia erabiltzearen aldekoa da. Euskaratik erdarara, ezagunetik ezezagunera, hizkuntza biak ikasi eta landuz.

Zubi-langintza dagokio euskarari. Era horretara euskara gaztelaniaren zerbitzuean jartzen du, noski. Baina ez litzateke bidezko gure aldetik XXI. mendearen ateetako eztena eta ikusmira erabiltzea Iturriaga juzkatzerakoan. Egilea bere ingurugiroan ulertu behar da, garaiaren eta lekuaren mugapenez ahaztu gabe. Gisa da aitortzea, horretara, egungo euskararen egoera soziolinguistikoa eta sasoi hartakoa— jakin dezagun, esate baterako, Gipuzkoan %100ek zekiela euskaraz—ez direla berdinak, egoera soziopolitikoa ere kolore eta tenore berdinekoa ez den bezalaxe.

11



J.B. ERRO (1773-1854)

Garai bateko euskararen apologisten ildoak galdu gabe (Poza, Etxabe, etab.) eta hurbilagokoen (Larramendi, Astarloa), epigono bezala, XIX. mendean ez zen falta izan Erro bezalako hizkuntzaren defendatzaileak. Erro, gainera, gizon politikoa izan zen («del Consejo de S.M.», esaten da Juntan Agirietan), eta beronen erreguz sortu zen Arrasaten Euskara-Batzordea (1830).

Gaur egun gauzak larriagotu egin zaizkigu. Erdarak ezertarako oztoporik ez duen bitartean, euskara elbarri dugu, larri gara... Ez genuke dudarik egin behar horrelako larritasunen bat somatuko zutela garai hartako euskaltzale saiatuek ere euskara lurraldez atzeraka nabarmenak jasaten ari zela ikustean. Araban galera nagusia XVIII. mendekoa da; Iturriagak oso gertu duen Nafarroan, berriz, XIX.ekoa.

#### IDAZLANAK

Iturriagaren idazlanak ez dira ugariak eta testu-masa handikoak, baina euskaltzaleei abiabide berriak proposatzen zizkieten, euskal pedagogiari tresna erabilgarriak eta balio didaktiko hobekoak aurkeztuz.

Larridura horrek sortuko du, bestalde, eraginik. Euskararen aldeko berpizkundera sortzeaz dagoela ere baieza dezakegu. Iturriaga, Iztueta, J.P. Ulibarri, L. Astigarraga eta abarren ahaleginen ondorioz, euskara prestijio soziala irabazten hasiko da eta erakunde publikoetan kezka nabarmenak bizkortzen, mendebukaerako euskal mugimendu sendoaren atari gisa.

Haien haziaren emaitzak dira, dudarik gabe, mendearen azken aldeko pizkunderak berekin dituen ekintzak eta pertsonalitateak: Lore-Jokoak, S. Arana, A. Kanpion, Abadia, etab.



## IDAZLANAK

Hizpidea jarri baino gehiago egin zuen Iturriagak: kontsekuente izan. Ez da teoria politik botata eta lasai gelditzen direnetakoa, Bistakoa zen asmo pedagogiko horiek praktikara eramateko tresnak behar zirela, hau da, irakurgaiak. Bada, horiek ere, aurreraxeago ikusi ahal izango dugun bezala, emango dizkigu Iturriagak.


Ez da ondare literario zabala utzi dugun autoreak, egia esan. Hiru liburu ondu zituen. Erbestean garatu eta umotutako lanak dira bereak, ziur aski; eta Iparraldetik etxeratu zenean argitara emandakoak. Berandu, horregatik, 63 urte izango bait zituen honez gero.

### ALEGIAK

XIX.eko Euskal Herrian literatur genero honi erabilgarritasun zabalagoa aurkitu zitzaion, eskolagintzak gora egin zuen heinean. Iturriagak gogoz heldu zion literatur alor horri, eta ia berrehun orrialdeko liburuxka txukuna eman zuen argitara: **Fábulas** (1842). Ondoko edizioetan argitalpen irudiztatuak ere egin dira. Aurreko mendeko Samaniegok (erdaraz), edo gertuagoko M. Zabalak nahiz XX.ean Oxobik (euskaraz) moldaturikoen artean lekutu behar da Iturriagaren ahalegin literario hau.

Kritikari bat baino gehiago da kexu Iturriagari eginiko iruzurrez. Izan ere, eta zenbat bider gure artean!, klasiko bati dagokion zoria eta patua izan ditu, zoritxarrez, honek ere. Alegia, izena eta omena zero altuetaraino jasoak dauzkan bitartean, obrak bakanki baino ez dira irakurtzen. Horra gure arteko betiko kontraesana!.

Idatziriko hiru liburuen helburu bakarra irakaskuntza izanik ere, badago alderik horien artean, berehala ikusiko dugunez.



## ESKOLARAKOAK

—*Arte de aprender a hablar la lengua Castellana para el uso de las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa* (1841) du bere lehen liburua. Izenburu luzea, honetan ere garaiko ohiturari jarraiki. Euskaratik abiatu behar da erdarara; horixe da bidea. Menperatzen den euskaratik ikasleei ezezagun zaien erdarara. Astakeria handia iruditzen zaio, euskara menperatu gabe, irakurtzen eta idazten ikasi gabe, erdararekin hastea.

—*Diálogos Basco-castellanos para las escuelas de primeras letras de Guipúzcoa* (1842) da bigarrena. Aurrekoaren osagarri atera zuen hau. Elkarrizketak, parez pare, bi zutabetan zetozen —euskaraz batean, gaztelaniaz bestean— horrela ikaslea errazago ohar zitekeelako euskal eta erdal morfología eta joskeraren berezitasunez.

Geroago L.L. Bonaparte Printzeak, gipuzkeraz datozen elkarrizketa hauek beste hiru euskalki literarioetara egokitu zituen —bizkaierara (Uriarte), lapurterara (Duvoisin) eta zubererara (Intxauspe)—, eta baita frantsesera itzuli ere.

Liburu hau *Jolasak* izenez ezagutu izan da euskaraz, *Diálogos* direlako horiei liburuan bertan Jolas deitzen zaielako. Darabilen gaiatik laborantzako liburu txiki bat dirudi; Basilio irakaslearen eta Antonio ikaslearen arteko elkarrizketez osaturiko liburutto bat.



## IPUINAK

Euskaraz *Ipuiak* izenarekin ezagutu izan dena da hirugarren liburua: *Fábulas y otras composiciones en verso bascongado, dialecto guipuzcoano, con un diccionario vasco-castellano de las voces que son diferentes en los diversos dialectos*. Bigarrena argitara zen urte berean kaleratu zen hau ere, 1842an. Bestiak ez bezala, hau bertsoz dator.

Bi lehenek, bereziki irakaskuntzarako liburuak direlako edo, eman ez zioten ospea emango dio egileari hirugarren honek. Benetako birsortze-lana egin zuen liburu honekin, zeren, itzultzen ari delarik ere, bere baitatik ari dela bait dirudi. Itzulpen lanak ez dio, antza, inolako nekerik eta itomenik sortzen. Lasai eta ederto daki borobiltzen bere ekina.



Euskaldunok oso maite dugun mundua da alegiarena. Gaztelaniaz idatzi zuen Samaniego ospetsua bera ere arabarra dugu, eta bere *Fábulas en verso castellano* (1781) Bergarako Mintegikoen erabilerarako egin zituen. XIX. mende honetan, bestalde, loraketa nabarmena ageriko da Euskal Herriaren luze-zabalean. Iparraldean, besteren artean, Archu, Goyetche, Adema, Oxobi, etab. dauzkagu; Hegoaldean, berriz, M. Zabala, Mogeldarrak, Iturriaga, etab.

Fabula edo alegian eraikitzen den fikzioan komunzki animaliak agertzen dira, eta irakaspén gisa ondorioztatzen den lekzioa du helburu. Alegiak, beti ere, satira eta pedagogia —ez alferrik Iturriagarekin— ditu elementu nagusi, eta gure autoreak badaki zukua ateratzen. «Esnésaltzallea»rena omen da borobilena eta ongien burutua.

Goimailako ageri da, horretara, Iturriaga bere berrogeitamabost alegia horietan. Gatza eta biperra soberan dute. Samaniegoren alegietatik itzultitakoak dira nagusiki, eta Virgilo latindarraren lehenengo eta hirugarren eglogak ere bai.



## SAN IGNAZIOREN MARTXA

Iturriagari eskaintzen diogun lantxo hau ezin dugu bukatu, hala ere, apika bere lanik ezagunena dena aipatu gabe.

«San Ignazioaren Martxa» esanda ezagutzen den eliz kanta berak egina da. Guipuzkoako —eta duela gutxi arte Bizkaiko ere bai— patroï handiaren ereserkia erdaraz kantatzen omen zen eta horrexegatik jarri omen zuen euskaraz aitortzen dio gutun batean Iztuetari.

«Ignazio, gure patroï andia,  
Jesusen konpañia,  
fundatu eta dezu armatu...»



### SAN IGNAZIOREN MARTXA

Gure egunetararte iritsi diren kanta honen hitzak Iturriagak jarri zizkionak dira. Geroztik eman zaizkion itxuraketa garbiagoek ere ezin izan dute galerazi letra zaharragoaren oihartzuna.